

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntzak Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuari buruzko prestakuntza-jardunaldi bat antolatu du zuzendaritza-taldeentzat

*Nafarroako ikastetxeek 2018/19 ikasturte honetan jorratu beharreko plangintzen sentsibilizazio eta diagnostiko faseak aztertu dituzte*

Asteartea, 2018.eko irailak 11

Hezkuntza Departamentuak etapa ezberdinetako ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak bildu ditu gaur, asteartea, Iruñean duen egoitzan, Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuari buruzko prestakuntza-jardunaldi bat egiteko, eta, bertan parte hartu dute, baita ere, Departamentuko langileek, Hezkuntzako Ikuskatzailletza barne. Jardunaldia streaming bidez jarraitu ahal izan da, ikastetxeen antolaketa eta parte-hartzea erraztearren. Saioaren grabazioa Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egiteko gida material osagarri gisa duen [web](#) orrialdean eskuratu ahal izango da beranduago.

Jardunaldian hitzaldia eskaini du [Ana Basterra Cossío](#) adituak, arlo soziolinguistikoan ibilbide zabala duenak, eta jardunaldira joandako 150 profesional baino gehiagorekin ikastetxearentzat dokumentu erabilgarria egiteko gakoak partekatu ditu; besteak beste, Hizkuntzen Tratamendu Integratuaren printzipio metodologikoak ezartzen lagunduko du dokumentuak.

Eleaniztasunaren eta Irakaskuntza Artistikoen Zerbitzuak Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua ezartzeko fasean parte hartuko duten ikastetxeei akonpainamendu-zerbitzua eskainiko die hemendik aurrera.



Ana Basterrak zuzendu du hizkuntza-proiektuen inguruko prestakuntza-saioa.

Prestakuntza-jarduera hau Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egiteko lehen urratsa da, eta, bertan, 2018/2019 ikasturtearen hasierako jarraibideetan ezarritako sentsibilizazio eta diagnostiko faseak sartzen dira, Hezkuntzako zuzendari

orokorrak [uztailaren 2an emandako 350/2018 Ebazpenaren bidez](#). Modu horretan, Hezkuntza Departamentuak Hizkuntza Proiektua ezartzearen aldeko apustu garbia erakutsi du, ikastetxeen funtzionamendurako oinarritzko dokumentua bezala, soziolinguistikoki gero eta anitzagoa den errealitateari erantzuna emanaz eta hezkuntza-sistema eleaniztunerako bidea sustatuaz, ikastetxearen autonomiatik eta gertutasunetik abiatuta.



Streaming bidez jarraitu ahal izan den jardunaldira joandakoak.